



Usurbilgo Udala

## 2023KO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUA

### 1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukia

Udalaren Aurrekontu Orokorrak, 13.218.200,00 eurotako gastu eta sarrerak ditu.

### 2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak

2023ko ekitaldi ekonomikoan, Usurbilgo Udalak abalak eman ahal izango ditu, bere aurrekontuko hasierako kredituen zenbatekoaren % 5eko mugapean.

### 3. artikulua.- Zorpetze muga

2023ko ekitaldiaren barruan Udalak urtebetetik beheko zorpetze eragiketak hitzar ditzakete, Diruzaintzan sor daitezkeen unean uneko premiak finantzatzeko. Dena dela, eragiketa horiek hitzartu ahal izateko, Udalbatzarrak onartu beharko ditu aldez aurretik.

Diruzaintzako eragiketa horien hitzarmena eta beren amortizazioa, aurrekontuz kanpoko eragiketak izango dira.

### 4. artikulua.- Kredituen lotura juridikoen maila

Gastuetarako kredituak Aurrekontuan edota horren aldaketetan berariaz onetsi den helbururako erabili ahal izango dira soilik.

Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotura-mailaren arabera:

Kapitulua	Lotura maila
I.- Pertsonal gastuak III.- Finantza gastuak IX.- Finantza pasiboak	Kapitulua
II.- Gastu arruntak eta zerbitzuak IV.- Transferentzia arruntak VI.- Inbertsio errealak VII.- Kapital transferentziak VIII.- Finantza aktiboak	Kapitulua eta gastu arloa



Usurbilgo Udala

## **5. artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak**

Aurrekontu kredituak aldatu ahal izango dira, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuak eta Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauak jasotzen dituzten xedapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamenarekin batera adierazi beharko da zein gastu-programetan izango duen eragina. Halaber, burutu beharreko ekintzetan nahiz lortu nahi diren helburuetan gertatuko diren aldaketak jaso beharko dira, horiek neurtzeko erabilitako adierazleen zenbateko eta maiztasunak ere eguneratuz, hala behar izanez gero.

Alkate Lehendakaria izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada.

## **6. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidearen erregulazio arauak**

### *1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak*

Gastuen Aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastuaren erabilera.
- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Ordainketaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.

### *2.- Gastuen baimena eta erabilera*

Gastuen baimenean eta erabileran eskumen arau hauek beteko dira:

- a) Udalbatzarraren eskumena izango da udal aurrekontuko sarrera arrunten % 10 baino gorako gastuen, nahiz konpromisozko kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera.
- b) Alkate Lehendakariaren eskumena izango dira udal aurrekontuko sarrera arrunten % 10 bitarteko gastuen baimena eta erabilera.

Gastuen baimenerako espedientea alorreko ordezkariak proposatu ondoren hasiko da, gastuaren beharra zurrizko berak egiten duen memoriarekin batera, hain zuzen. Kontu-hartzaileak espedienteari buruzko txostena idatzi beharko du, 21/2003 Foru Arauak 65etik 74ra artikuluetan jasotakoaren arabera.



Usurbilgo Udala

### 3.- Obligazioaren onarpena

Lehendakariak onartuko ditu legez eskuratutako gastu konpromisoetatik sortutako obligazioak.

Obligazioen onarpena oinarritzeko agiritzat kontu-hartzailearen txostena daraman faktura zerrenda har daiteke.

Aldez aurretik, zerbitzuburuak faktura bakoitza adostu beharko du, alorreko ordezkariaren oniritzia jaso, eta honakoa adierazi:

- \* Zein aurrekontu partidatan eta zein kate bururen erreferentziapean kontabilizatu behar den.

### 4.- Ordainketaren agindua

Udal entitateko lehendakariaren esku dago aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

### 5.- Aurrekontua gauzatzeko faseak metatzea

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren muga barne:

- \* Gastuen baimena eta erabilera, udal entitatean legez hartutako konpromisoetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguen interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzenez erosketak.
- \* Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arrunten gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigigarritasuna bat-batekoa denean: 600 eurotik beherako erosketa arruntetan, dietak eta joan-etorriak, bestelako gastu finantzarioak eta langileei egindako aurrerakinak. Multzo honetan sartzen dira, halaber, langileen hileroko nomina ordainketak eta udal entitatearen kargura diren Gizarte Segurantzaren kuotak ere.

Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da beti ere, erabakia hartuko duen organoak berezko eskumenak, eskuordetutakoak nahiz deskontzentratuak izatea ebazpenaren barruan sartzen diren fase bakoitza eta guztiak erabakitzeko.



Usurbilgo Udala

## 7. artikulua.- Zuritu beharreko ordainketak

Ordainketa agindu guztiak agiri bidez justifikatzeko printzipioaren salbuespen gisa, eta hurrengo artikuluan araututako kutxa finkoko aurrerakinen zirkuitu bidez egitea ezinezkoa denean, "zuritu beharreko" izaerako ordainketa aginduak egin ahal izango dira.

Egindako ordainketak dirutza jaso eta gehienez hiru hilabetera zuritu beharko dira.

Zuritu beharreko ordainketa aginduak egin ahal izateko, nahitaezkoa izango da jasotzaileak aurrez jaso eta artean zuritzeke fondorik ez izatea.

Alkateari dagokio baimena ematea.

## 8. artikulua.- Kutxa finkoko aurrerakinak

Aldizkako izaera duten edota errepikakorrak diren xedeetarako zuritu beharreko ordainketek kutxa finkoko aurrerakin izaera izango dute. Aurrerakinak ematea nahiz itzultzea aurrekontuz kanpoko eragiketarako izango dira.

Kutxa finkoko aurrerakinak honako xedeetarako eman ahal izango dira soil-soilik, eta ondorengo mugen barne:

<b>XEDEA</b>	<b>ARDURADUNA</b>	<b>MUGA (€)</b>
Protokolo gastuak	Alkatetza	600
Mantenimendua eta artapena	Obra eta Zerbitzuak	2.000

Kutxa finkoko aurrerakinak udal entitateko lehendakariaren dekretuz onartuko dira, alorreko ordezkariak proposatuta. Diru-hornidura automatikoki berritu daiteke aurrerakoaren likidazioa aurkeztu ondoren.

Kutxako arduradun, ordaintzaile nahiz habilitatuek jasotako dirutza Korporazioaren Kutxan kokatu beharko dituzte eta behar ahala erabili ahal izango dituzte aurreikusitako xedeetarako. Guztiz galarazita gelditzen da fondo horiek nork bere helburuetarako erabiltzea. Aurrerakinen jasotzaileek, hala hobetsiz gero, kontu korrante bat ireki ahal izango dute entitate finantzario batean Udalaren izenean, jasotako fondo bertan sartu eta, horren beharra dutenean baimendutako xedeetarako.

Kutxa finkoko aurrerakinen jasotzaileek udal kontu-hartzaitzari eman beharko diote jasotako dirutzaren berri eta egindako ordainketen jatorrizko ordainagiriak aurkeztuz. Berri emate hau



Usurbilgo Udala

aurrerakina eman eta handik hiru hilabetera egin beharko da gehienez eta, beti ere, abenduaren 15 baino lehen.

Aurrerakinak zurtzean, dagokion aurrekontu partidari aplikatu beharko zaizkio ordain-aginduak.

## **9. artikulua.- Kontratu txikiak**

1. Kontratu txikitzat joko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, 229. artikuluan Estatuaren eremuan zentralizatutako obra, zerbitzu eta hornidurei buruz xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Kontratu txikietan, espedientea izapidetzeko, kontratazio-organoak txosten bat egin beharko du, eta, txosten horretan, arrazoitu egin beharko du kontratuaren beharra eta xedea ez dela aldatzen ari, aurreko paragrafoan deskribatutako atalaseak aplikatzea saihesteko.

3. Era berean, gastua onartzea eta dagokion faktura sartzea eskatuko da. Faktura horrek lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

4. Obra-kontratu txikian, gainera, obren aurrekontua gehitu beharko da, hargatik eragotzi gabe kasuan kasuko proiektua egotea, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutenean. Halaber, 235. artikuluan aipatzen diren ikuskapen-bulego edo -unitateei txostena eskatu beharko zaie, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten dienean.

5. Artikulu honen 2. paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ordainketa txikiak egiteko kutxa finkoko aurrerakinen sistemaren edo antzekoren baten bidez ordaintzen diren kontratuetan, betiere kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik beherakoa bada.

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

Legeak xedatutakoa kontuan hartuta, ondorengo barne-funtzionamendu arauak jartzen dira, kontratu administratibo txikien arloan, prozedurari dagokionez:

Kontratuak tramitazio elektronikoa izango du. 3000.-€tik beherako kontratu txikiak Sareko aplikazio bitartez bideratuko dira, betiere berezitasun teknikorik edo baldintza berezirik barneratzen ez badute.

Aldiz, 3000.-€tik gorako aurrekontua duten kontratuak edota berezitasun tekniko edo baldintza bereziren bat barneratzen dutenak EsKua aplikazio bitartez bideratuko dira, horretarako berariaz sortutako prozedura erabiliz. (kopuru guztiak BEZ gabekoak dira)



Usurbilgo Udala

## 10. artikulua.- Udal talde politikoei ekarpenak eta zinegotzien ordainsariak batzordeetara bertaratzeagatik.

9.1.- Udal talde politikoei ekarpenak:

Talde politikoa	Zinegotzi kopurua	Zinegotzi bakoitzeko	Zinegotzi variablea	Taldeko finkoa	Guztira
EH Bildu	8	1.320	1.320*8	4.800	15.360
EAJ	4	1.320	1.320*4	4.800	10.080
PSE-EE	1	1.320	1.320*1	4.800	6.120
	13				31.560

9.2.- Arduraldia onartuta duten zinegotzien ordainsariak:

	Zinegotzi kopurua	Arduraldia	Maila
Gobernu Taldea	3		
	Alkatea	%100	18
	1. Alkateordea	%100	15
	2. Alkateordea	%100	18
Oposizioa	1	%50	13
Guztira	4		

9.3.- Plenoko, Tokiko Gobernu Batzarreko eta Batzorde Informatzaileetako bilkuretara bertaratzeagatik, dedikaziorik ez duten zinegotzi bakoitzari dagokion ordainsaria 50 €tan finkatzen da.

9.3.1.- Bertaratze ordainsariak ordaintzeko prozedura:

Batzorde bakoitzeko idazkariak hil bakoitzean izandako bilkuren eta bertaratutako zinegotzien erlazioa bidali beharko du kontu-hartzaitzara hurrengo hilaren 3rako gehienez, eta horien arabera ordainketak 10ean egingo dira.



Usurbilgo Udala

## 11. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalte ordainak

Lehendakariak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorriengatik, honako kalte ordainen eskubidea izango dute:

a) Joan-etorriak gastuak:

- \* Udal hautetsi edo langileak ibilgailu propioa erabili behar badu udal eginkizunetan, 16/1993 Dekretuan eta bere azken aldaketan aurre ikusitako gastuak ordainduko zaizkio, beti ere gastua ordainagiriz zuritu eta gero.
- \* Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero.

b) Otordu eta ostatu gastuak:

- \* Egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz zuritu eta gero

Funtzionarioek eta langile kontratatuek egindako lanen kalte ordainei buruz Eusko Jaurlaritzak otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan jasotako indemnitazioak hartzeko eskubidea izango dute.

Kasu guztietan, bai hautetsiek bai gainerako udal langileek egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren, irteera eta itzuleraren ordua, eta egindako gestioen berri jasoaz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalte ordainaren zenbatekoa.

## 12. artikulua.- Diru-laguntzak

Edozein jarduera antolatzeko Udalak nahiz organismo autonomoek emandako diru-laguntzek bat etorri beharko dute Gobernu Batzordeak, batzorde informatiboen proposamenez onartutako oinarriekin, deialdia irekia denean. Diru-laguntza hitzartuak eta izendunak, zuzenean emango dira, baldintzak betetzen direnean.

Udalaren aurrekontuaren kargura inolako diru-laguntzarik jasotzen duenak, aldez aurretik, Udalarekin bere zerga betebeharrak eginak dituela egiaztatu beharko du. Horretarako, kontu-hartzaileak ziurtagiri bat sinatu beharko du eta bertan jaso borondatezko epealdia bukatu ondoren zergadunak ez duela inolako zorrik ordaindu gabe.

## 13. artikulua.- Ikastaroak

Ikastaroetan parte hartzeko honako arauak bete beharko dira:



Usurbilgo Udala

- a) Baimenaren proposamena alorreko arduradunak sinatuko du, udal entitateko lehendakariaren oniritziarekin, besteak beste honako datuak jasoz:
- \* Ikastarora doanaren datuak. izen-abizenak, lanpostua, e.a.
  - \* Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
  - \* Orduategia.
  - \* Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.
- b) Udal entitateko lehendakariak ebatziko du baimen proposamenari buruz, aurrez kontu-hartzaileak aurrekontu krediturik badagoen eginiko txostena ikusita.
- c) Ebazpena ikusita, diruzainak “zuritu beharreko ordainketen” izaera izango duen diru-hornidura egingo du.

#### **14. artikulua.- Kredituak aurrerapenez txertatzea**

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiok batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

- Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 32.1 artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean egotea.
- Zerbitzuburuaren txostenaren bitartez kreditua aurrerapenez txertatzeko beharra frogatzea.
- Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, salbu diru sarrera helburudunen bitartez finantzatutako kapital eragiketak badira.

Kredituen txertaketa aurreratua gauzatuko da baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoan kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu





Usurbilgo Udala

ondoren behin-betiko onartuko da.

#### **15. artikulua.- Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa.**

Talde Politikoei hiru hilean behin emango zaie Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa, programa eta kapituluaren arabera.

#### **16. artikulua.- Urte bukaera: fakturen eta obra-ziurtagirien izapidetza.**

Itxiera prozedurari begira, ekitaldiko fakturak edo ziurtagiriak Udaleko erregistro orokorrean urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira. Egun hori laneguna ez bada, hurrengo laneguna izango da azken eguna.

Dagokion sailean adostu ondoren, Kontu- hartzaitzara bidali behar dira, urtarrilaren 20 baino lehen.

#### **17. artikulua.- Aurrekontu antolaketa: gastu-programak eta arduradunak.**

		<b>PROGRAMAKAKO SAILKAPENA</b>
011	00	Zor publikoa
130	00	Segurtasunaren eta babes zibilaren administrazio orokorra
135	00	Babes zibila
150	00	Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra
151	00	Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina
153	00	Bide publikoak
153	20	Bide publikoen zolaketa
160	00	Estolderia
161	00	Edateko uraren etxez etxeko hornidura
162	10	Hondakinen bilketa
162	20	Hiri-hondakin solidoen kudeaketa
162	30	Hondakinen tratamendua
163	00	Bideak garbitzea
164	00	Hilerria eta hileta-zerbitzuak
165	00	Kale-argiteria
166	00	Hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua
170	00	Ingurumenaren administrazio orokorra



Usurbilgo Udala

171	00	Parkeak eta lorategiak
172	00	Ingurumenaren babesa eta hobekuntza
230	00	Gizarte zerbitzuen arloko administrazio orokorra
231	00	Lehen mailako gizarte-laguntza
231	01	Hirugarren adina
231	02	Etxez-etxeko laguntza
231	03	Gizarte sustapena
231	50	Berdintasuna
241	00	Enpleguaren sustapena
311	00	Osasungarritasun publikoaren babesa
323	00	Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen eta hezkuntza bereziko ikastetxeen funtzionamendua
326	00	Hezkuntzako zerbitzu osagarriak
330	00	Kulturaren arloko administrazio orokorra
332	10	Liburutegi publikoak
333	00	Kultura-ekipamenduak eta museoak
334	00	Kulturaren sustapena
335	00	Euskara
338	00	Herri-jaiak eta ospakizunak
340	00	Kirolaren arloko administrazio orokorra
341	00	Kirola sustatzea eta bultzatzea
342	00	Kirol instalazioak
412	00	Nekazaritza eta abeltzaintzako egituren eta ekoizpen-sistemen hobekuntzak
422	00	Industria
432	00	Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena
433	00	Enpresa-garapena
450	00	Azpiegituren arloko administrazio orokorra
454	00	Auzo-bideak
459	00	Beste azpiegitura batzuk
912	00	Gobernu-organoak
920	00	Administrazio orokorra
922	00	Erakunde lokalen koordinazioa
924	00	Herritarren parte-hartzea



Usurbilgo Udala

931	00	Politika ekonomikoa eta fiskala
932	00	Tributu-sistemaren kudeaketa
933	00	Ondarearen kudeaketa

<b>SAILKAPEN ORGANIKOA</b>			
		<u>Arduradunak</u>	
		<u>Politikoa</u>	<u>Teknikoa</u>
10	Antolakuntza	Beñat Larrañaga	Olatz De Miguel
11	Gobernu-taldea	Agurtzane Solaberrieta	Olatz De Miguel
12	Idazkaritza	Agurtzane Solaberrieta	Garazi Etxeberria
13	Komunikazioa	Agurtzane Solaberrieta	Maialen Unanue
14	Informatika	Beñat Larrañaga	Ainhoa Leunda
20	Ogasuna	Beñat Larrañaga	Gorka Lizarraga
30	Udaltzaingoa	Agurtzane Solaberrieta	Nekane Eizagirre
40	Kulturgintza	Luken Arkarazo	Maite Iribar
41	Liburutegia	Luken Arkarazo	Marian Altuna
42	Euskara	Oskar Santamaria	Maite Iribar
43	Kirolak	Beñat Larrañaga	Esti Aldeiturriaga
44	Gazteria	Luken Arkarazo	Maite Iribar
50	Garapen agentzia	Ainhoa Arrozpide	Josune Mujika
51	Lanbide hastapena	Beñat Larrañaga	Idoia Beloki
52	Hezkuntza	Beñat Larrañaga	Josune Mujika
60	Hirigintza	Agurtzane Solaberrieta	Joxan Erasun
61	Ingurumena	Joxe Mari Iribar	Ibon Goikoetxea
62	Nekazaritza	Joxe Mari Iribar	Ibon Goikoetxea
70	Zerbitzuak eta obrak	Ainhoa Arrozpide	Imanol Etxeberria
80	Gizartekintza	Itziar Basterrika	Kontxi Zaldua
81	Parekidetasuna eta Aniztasuna	Agurtzane Solaberrieta	Ainara Diaz
90	Langilegoa	Beñat Larrañaga	Olatz De Miguel



Usurbilgo Udala

## USURBILGO AURREKONTU OROKORRA 2023

### INDIZEA

- 1 Aurrekontuaren laburpena kapituluka 2020/2021/2022/2023**
- 2 Aurrekontuko sarrera eta gastuen xehetasunak partidaz partida..**
- 3 Alkatearen Memoria.**
- 4 Edukiari buruzko txostena, Kontu hartzaileak**
- 5 Ekonomia eta finantza txostena, Kontu hartzaileak**
- 6 Prozedurari buruzko txostena, Kontu hartzaileak**
- 7 Genero ikuspegiko txostena, Berdintasun teknikariak**
- 8 Inbertsioen eranskina.**
- 9 Transferentzien eranskina.**
- 10 Zorpetzearen eranskina.**
- 11 Pertsonalaren eranskina: lanpostuen zerrenda.**
- 12 Itxitako azken likidazioa, 2021koa**
- 13 Aribideko ekitaldiko aurre-likidazioa, 2022koa.**
- 14 Udal Finantzazio Foru Fondoaren xehetasuna**
- 15 Aurrekontuak gauzatzeko udal Araua.**
- 16 Konpromiso kredituen eranskina**